- Toma la palabra el concejal Sr. Gaztelu que como concejal y miembro de la Mancomunidad de basuras Bidausi, informa del planteamiento que se está haciendo de ampliar contenedores y modificar la recogida de basura. Más contenedores amarillos y azules para optimizar el reciclaje, ya que el plástico y el cartón es lo que más volumen de basura genera, si bien para eso es necesario tenerlos más cerca de casa. Por ello está realizando un estudio de las necesidades y de los lugares donde faltan y donde habría que colocar los mencionados contenedores. Por ejemplo detrás del frontón que tal y como están no se pueden utilizar bien, delante de la casa de cultura serían necesarios plástico y papel, donde el Loizu quedarían igual, para la Borda y Biltoki pedir uno de vidrios, así como para el cementerio, etc. Hablará con el que recoge para preguntarle sus experiencias ya que entiende que hay demasiados contenedores de un tipo y pocos de otro y habría que racionalizar el tema. Así mismo, propone poner un bando con propuestas de nuevos contenedores, tenerlo un tiempo en exposición, por si la gente quiere alegar al respecto.

- A propuesta de la mayoría, se aprueba por unanimidad trasladar las sesiones ordinarias a los lunes a las 17 h.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 22,00 h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko udaletxean, 2015eko urriaren 6an, arratsaldeko 20:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Hauek izan ziren bertaratutako zinegotziak: Aneva Cilveti Loperena, Arkaitz Karrika Iribarren, Iñaki Xabier Yoller Urdiruz, Pedro Juan Karrika Narbaitz, Mikel Gaztelu Alonso eta Francisco Javier Dufur Oharriz, bilkuraburu alkatea, Luis De Potestad Tellechea, izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Iurre.

1.- 2015EKO EKAINAREN 13AN ETA UZTAILAREN 3AN EGINDAKO BILKUREN AKTEN ONESPENA.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2015eko ekainaren 13an eta uztailaren 3an egindako bilkuren aktak onartzea.

Dena den, 2015eko uztailaren 3ko bilkuraren aktan akats bat dago, bertaratuen artean Gaztelu jn. agertzen baita eta ez zelako bilkuran izan.

Ondoren, kontu-hartzaileak 2015eko ekainaren 12ko data duen fondoan kontaketa eman du, kargua uzten duen alkateak, diruzainak eta kontu-hartzaileak sinatua, eta dagoena 284.104,69 euro dela dio eta Gaztelu zinegotziak hitza hartu du esanez ez dagoela ados uste duelako ematen den datua ez dela erreala eta nahasketa sortu dezakeela, horietatik 184.000 € Udalak dituen kreditu batzuei dagokielako eta, hortaz, zor gisa agertu behar dutela diru hori ez baitago, baizik eta zor delako. Modu berean esan du aspaldi horren

gaineko dokumentazioa eskatu zuela et oraindik ere zain dagoela, edo hobeki esanda, paper mordoia eman ziotela baina ez da deus ere ulertzen.

Idazkariak hitza hartu du eta azaldu du egindako kontaketa kontabilitate publikoarekin bat egiten duela eta toki entitateak karguen aldaketa egin zen egunean dituen kontuetan dagoen diru likidoaren informazioa ematen duela eta idazkari-kontuhartzaile den neurrian eta tokiko entitateen kontabilitate publikoaren arautegia kontuan hartuz modu horretan agertu behar dela. Gaineratu du Udalak bi kreditu dituela eta biak eskuragarri daudela, izan ere oraintxe bertan baliogabetu daitezke horretarako dirua hor dagoelako, baina Udalaren asmoa mantentzea izan dela balizko inbertsioak egin ahal izateko. Eskatu zuen dokumentazioari dagokionez, idazkariak uste du kontuen espediente osoa eman zitzaiola, besteak beste, diruzaintzaren egoera eta kontaketa akta agertuz, kontu korrante guztien eta bakoitzean dagoen dirua eta zorraren egoera, eta mailegu guztien egoeraren gaineko azalpenak ematen direla; beste aldetik dokumentazio hori publikoa da eta, beraz, zalantzak edukiz gero, bai kontabilitatea daraman Udalaren langileak zein berak ere prest daude edozein zalantza argitzeko.

Gaztelu jnk. Dio bere enpresaren kontabilitatea eraman duela 46 urtetan eta informazioa eman zaion moduan nahasketa sor daitekeela eta uste duela argi gelditu behar dela zein den zorra eta zeintzuk Udalaren egiazko izakinak. Idazkariak dio erabat diferentek direla kontabilitate publikoa eta pribatua eta toki entitateek kontabilitate publikoari egokitu behar direla.

2.- 2015eko EKAINAREN 13tik URRIAREN 1a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, De Potestad jnk., 2015eko ekainaren 13tik urriaren 1era eman dituen ebazpenen gaineko informazioa eman du, horiek bilkurako espedientean daude eta udalkide guztiak jakitun daude.

3.- 5º.- AURREKONTUKO ALDAKETAREN ONESPENA

Idazkariak, Ezcurra ak., jakinarazi du 2015eko baso jardueri dagokien aurrekontuko aldaketa onartzea beharrezkoa dela, partida horretan dagoena, 80.000 €, egin diren gastuak baino gutxiago baita, Nafarroako Gobernuak onetsitako eta diruz lagundutako jarduerekin bat eginez, besteak beste, proiektua eta zuzendaritza lanei dagozkien 6.971,20 €, areken garbiketa egiteagatik 10.001,93 €, pista konpontzeko 877,25 €, hertsia egiteagatik 77.011,24 € eta joan den urteko egur loteak ateratzeko egindako bidari dagozkion 3.248,85 €, nahiz eta azken hau baso jardueren proiektuan sartua ez egon antzeko lana da eta diru-partida egokiagoa da. Hortaz, aurrekontu nahikorik ez dagoenez eta hori erregularizatu behar denez, aldaketa hau onetsi behar da gastu orokorretarako dagoen diruzaintzako soberakinaren kargura.

2015eko URTEALDIKO AURREKONTU OROKOR BAKARRAREN KREDITU OSAGARRIA BIDERATZEKO TXOSTENA

AURREKONTUKO ALDAKETAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 447 69002	BASO JARDUERAK	18.110,47

<i>ALDAKETAK OSOTARA</i>	18.110,47
--------------------------	------------------

FINANTZIAZIO ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 870	DIRUZAINZAKO SOBERAKINA GASTU OROKORRETARAKO	18.110,47

<i>FINANTZIAZIO ITURRIAK OSOTARA</i>	18.110,47
--------------------------------------	------------------

<i>Diruzaintzako Geldikinaren kargura.</i>	18.110,47
--	------------------

Hori guztia Nafarroako Toki Ogasuneko 2/1995 Foru Legearen 212. eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren arabera egingo da.

Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 276 artikuluekin bat eginez espedientea jendaurrean egonen da 15 lan eguneko epean udal idazkaritzan, nahi duen orok hura aztertu eta egokiak deritzon erreklamazioak egin ahal izateko.

Erreklamaziorik egon ezean, orain onartu den espedientea behin betikoa kontsideratuko da eta haren laburpena argitaratzeko tramitea bukatutzat emango da.

4.- ADMINISTRAZIO ZERBITZUEN BATASUNEN ESTATUTUEN ONESPENA (6/1990 Legearen 46. artikulua, 48. artikuluekin korrelazioan)

Alkateak, De Potestad jnk., hitza hartu du eta osatu nahi den administrazio zerbitzuen batasunaren gaineko informazioa eman du, egun dagoena idazkari batez baliatzeko besterik ez baita, eta Orreaga, Erroibar eta Luzaideko udalek langile batzuk partekatzen dituztenez, bidezkoena langile horiek bere baitan hartuko duen batasun berria osatzea litzateke. Oraingoan administrariak, euskara teknikaria eta idazkaria sartuko lirarteke eta aurrerago ikusiko da zerbitzu anitzetako langileak sartzea komeni den ala ez.

Idazkariak hitza hartu du eta esan du batzordea osatu zela hiru udaletako ordezkariekin eta berarekin, Nafarroako Gobernuak Remirez de Ganuza jaunak aholkatuta, eta estatutuak prestatu zituztela; estatutuak hilabeteko epean egon ziren iragarki oholetan eta orain udal bakoitzak onetsi behar ditu, Nafarroako Gobernuaren aldeko txostena jaso ondoren.

Gaia eztabaidatura aho batez erabaki da estatutuak Nafarroako Gobernura igortzea, onestea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

5.- AURIZKO AUTO-TAXI ZERBITZU PUBLIKOAREN ARAUTEGIAREN ALDAKETA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Aurizko Udalak Aurizko Auto-Taxi Zerbitzu Publikoaren Arautegiaren 4. artikulua aldatzea onetsi zuen hasiera batean. Aldaketa 2015eko abuztuaren 10eko 154. NAO n argitaratu zen eta jendaurrean egon den epean alegaziorik aurkeztu ez denez, udalbatzak erabaki du aho batez:

1.- Aurizko Auto-Taxi Zerbitzu Publikoaren Arautegiaren 4. artikulua aldaketa behin betiko onartzea. Hona hemen:

4. Artikulua.

Taxi Zerbitzu Publikoa emateko gidaria eta taximetroa duten ibilgailuek honako baldintza bete beharko dituzte: Udalaren baimena edukitzea, segurtasuna, 9 HP baino potentzia handiagoa eta edukiera gutxienez 4 lekukoa izatea.

Ibilgailu horiek karrozeria itxia izan beharko dute, baita sarrera errazeko ateak ere, zeinetan eta gibelaldean leihatilak izan beharko baitituzte, ahalik eta ikuspen, argitasun eta aireztapen handiena lortzeko adina.

(Hau gehitzen da:)

Udalak ez du taxi zerbitzua egingo duen ibilgailuaren pintura ezarriko, edozein koloretakoa izan ahalko baita; dena den taxi lizentzia duten ibilgailuek daramaten bereizgarriak eman beharko ditu.

2.- Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta argitaratzen denetik ordenantzaren aldaketa indarrean jarriko da.

6.- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEAREKIN ELKARLANEAN ARITZEKO HITZARMENAREN ONESPENA, PIRINIOKO GALTZADA ERROMATARRA BERRESKURATU ETA BALIOAN JARTZEKO

Alkateak, De Potestad jnk., hitza hartu du eta jakinarazi du bilera egin zutela Nagoren Aranzadi Zientzia Elkarteak kideak eta udaletako ordezkariak, Aurizko Udalaren izenean Gaztelu jn. eta bera joan zirela, eta bileran Longidatik Frantziako mugaraino doan galtzada erromatarra balioan jartzeko hitzarmena sinatzeko aukera aztertu zutela. Ibilbidea zehaztua dago eta teknikariek proposatu ahala berregingo da, nahiz eta %100ean ezingo den berreskuratu. Hitzarmenaren iraunaldia urte naturala izango litzateke, luzagarria, aldeetako batek kontrakoa esaten ez duen bitartean; Batzorde bat osatu da eta Udalaren ordezkaria Gaztelu zinegotzia izango da, gaiarekiko azaldu duen interesa eta partaidetza kontuan hartuta. Aldi berean Aranzadi elkarteak urtero 1.500 euroko diru-laguntza eskatzen du.

Dufur zinegotziak hitza hartu du eta esan du Auritzen galtzadako zati gutxi gelditzen direla, toki askotan okupaturik dagoelako, etxeak egin direlako edo lurzati biterakuntza egin delako, adibidez Maria Ester Dufurren etxeko atzeko aldean dagoen lurzatia. Alkateak, De Potestad jnk. eta Gaztelu zinegotziak diote Orreaga aldera aztertu gabeko tokiak daudela oraindik ere.

Modu berean Gaztelu jnk. Dio Garaitzeko Asi Elkarteak prest dagoela laguntza emateko, 1500 euro horietatik 750 € emanez, laguntzaile berzi gisa agertzea eskatuz. Ekarpen hori kontabilitatean nola adierazi aztertu behar da.

Alkateak, De Potestad jn. hitza hartu du eta esan du Aranzadi Zientzia Elkarteak eskatu duela Udala lurren jabe denez, balioan jarriz gero, publizitatea egitea eta eskuko orriak prestatzea, eragin gehiago izan dezan, eta gaineratu du Aranzadik baduela Nafarroako Gobernuaren eta Arrobi Elkartearen baimena zundaketak egiteko. Hala ere uste du

proiektua interesgarria izan daitekeela gure herrira jendea erakartzeko, bere balio kultural eta turistikoarengatik.

Gaia eztabaidatu ondoren eta kontuan hartuz Garaitzeko Asi elkarteak 750 €-ko ekarpena egingo duela, aho batez erabaki da:

- 1.- Aranzadi Elkartearikiko hitzarmena onestea, urtero 1.500 € emanaz.
- 2.- Gaztelu jn. osatu den Batzordean parte hartuko duen ordezkaria izatea.
- 3°.- Aranzadi Elkarteari erabakiaren berri ematea.

7.- AUÑAMENDI GIZARTE ZERBITZUETAKO MANKOMUNITATEAREN ESKAERA

Alkateak, De Potestad jnk., hitza hartu du eta jakinarazi du Auñamendi Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak IKTen bidezko MEMORIA izeneko proiektua sustatzen ari dela eta haren bidez baliabide teknologikoak erabilia adinekoen memoria historikoa berreskuratu nahi da gazteen lanari esker, aldi berean gazteak eta adinekoak harremanetan jarritz. Proiektuan parte hartuko luketen gazteak 16 eta 20 urte bitartekoak izango dira eta jasotako informazioa blog batean bilduko da. Proiektuaren kostua 3.600 eurokoa da eta Udalak dagokion zatia ordainduko luke. Modu berean kultur etxea eta bertan dauden ordenagailuak erabiltzeko baimena eskatu da, nahiz eta ordenagailuak zaharkituak dauden eta beharbada ez dute horretarako balioko.

Dufur zinegotziak hitza hartu du eta esan du kultur etxeari dagokionez hura erabiltzeko baldintzak aztertu behar direla eta Udalak horren gaineko ordenantza bat prestatu beharko lukeela eta alkateak, De Potestad jnk., dio momentuz ebazpen bat dagoela erabilera neurri batean arautzen duena baina ez dituela aspektu guztiak kontuan hartzen. Kultur Etxeari dagokionez Gaztelu jnk. Dio konponketa batzuk egiteko zurgintza lanen aurrekontua eskatu duela eta 600 €ko aurrekontua dda.

Aho batez erabaki da IKTen bidezko MEMORIA izeneko proiektuan parte hartzea eta Aurizko Udalarari 3.600 euro horietatik dagokion zatia ordaintzea eta erabaki honen berri Auñamendi Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateari jakinaraztea.

8.- EHIZTARI ELKARTEAK BILTEGI-ETXOLA HERRIKO LURRETAN JARTZEKO LURZATIA UZTEKO ESKAERA

Alkateak, De Potestad jnk., hitza hartu du eta jakinarazi du San Nikolas ehiztari Elkarteari eskatu diola Udalarari lur bat uztea etxetxo bat egin eta zurak gordetzeko, orain arte udaletxeko sotoan gordetzen baitituzte; lur hori Ipetean izatea proposatu da baina Nasuvinsari txostena eskatu zaio eta horretan esaten da 1 sektorean ezarri den erabilera industriari lotuta dagoela, beraz honako ez da horrekin bateragarria; hala ere, obra baimena “prekarioan” eman daiteke, Udalak lursaila noizbait erabili beharko balu arazorik ez edukitzeko ezta kalte-ordainik ordaindu ere. Modu berean proposatu du ehiztari elkarteak zola okupatzeagatik urtero zerbait ordaintzea eta Udalaren arkitektoarekin lerrokadura, kolorea, eta abar adostea.

Aho batez erabaki da:

- 1.- Ehiztari Elkarteari Ipetean lursail bat uztea, biltegia izango den etxetxo egin dezaten.
- 2.- Urtero 300 €ko kanona jartzea.

3.- Hirigintza Batzordea, Karrika Narbaitz, Yoller eta alkatea, De Potestad, arkitektoarekin, Ana Lareki, elkartzea, lerrokadurak ezartzeko. Modu berean kontratuan baldintzak jarriko dira, besteak beste, desegitearena.

4.- San Nikolas Ehiztari Elkarteari erabaki honen berri ematea.

9.- 2002/09/17ko OSOKO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIA GAUZATZEKO PLANOAREN ONESPENA

Alkateak, De Potestad jnk., hitza hartu du eta jakinarazi du 2002an Ayaneko baratzaren titulartasunari buruzko erabakia hartu zela aho batez eta haren titulartasuna Felisa Dufur Notariri onartu zitzaion. Baratza Luzaideko 6 poligonoko 166b lurzatian dago. Erabakia ez da katastroan islatu eta haren mantentze lana egiteko teknikaria etorri dela ikusita, plano bat egin da eta horretan lursaila agertzen da, bere neurriak eta mugak hartutako erabakiari egokituz.

Bozketa egin aurretik Dufur zinegotziak, gaiarekiko interes zuzena duenez, ez duela bozkatuko dio.

Ondoren erabaki da aldeko sei botoz katastroko teknikariak (Tracasa) Luzaideko 6 poligonoko 166b lursailaren gainean egindako plano onartzea, 2002ko irailaren 17an hartutako erabakiaren arabera.

10.- IRATI IRRATIAREKIN ELKARLANEAN ARITU ETA KUDEATZEKO HITZARMENAREN ONESPENA ETA ORDEZKARIAREN IZENDAPENA

Alkateak, De Potestad jnk., hitza hartu du eta jakinarazi du bilera izan zuela Aezkoako Batzarre Nagusiko eta Erroibarko Udaleko ordezkariarekin Irati Irratiaz mintzatu eta haren funtzionamenduaren gaineko hitzarmenaren proposamena aztertzeko; hitzarmena Udalen eta Irati Elkartearen artean sinatuko litzateke. Modu berean jakinarazi du posteen mantentze gastuak Udalen kargura direla, hots, gure kasuan Auritz eta Luzaideko Udalen artean, eta arazo asko egon daitekeenez jakin beharko da aseguruak zer estaltzen duen. Urtero 420,00 euroko ekarpena egin beharko litzateke.

Hona hemen hitzarmenaren edukia:

Lehena.- Xedea.

1.1. Hitzarmenaren xedea da Aezkoako Batzarre Nagusiarenak diren tokiko irratia instalazioak Irati Elkarteak emititu, kudeatu eta erabiltzeko baldintzak arautzea; Aezkoako Batzarre Nagusia da irratia hasieratik sustatu duena eta 107.7 frekuentziaren erreserba duena.

1.2- Modu berean, Auritz, Luzaide eta Erroibarren 107.7 frekuentzian emititzeko baldintzak arautzen dira.

Bigarrena.- Tresneria.

2.1.- Erabiliko den tresneriaren barne sartzan dira emititzeko prestatu den tokia eta Batzarre Nagusiak duen goi- eta behe- maiztasuneko irratiko tresneria, dagokion inbentarioan sartua. Elkarteari inbentarioaren berri emango zaio, tresneria erabili baino lehen egokiak deritzon iradokizunak egin ditzan, beti ere idatziz eginak, Aezkoako Batzarre Nagusiak baloratu ahal izateko.

Tresneria hori eta tokia erabiltzeko egoera egokian daude, txosten teknikoaren arabera.

2.2-Elkartea behartuta dago, erabiltzeagatik erantzukizuna duen neurrian, tokia eta tresneria erabiltzeko baldintza egokietan uztera, hortaz, bere kargura izango dira horiek guztiak konpontzeko, mantentzeko edo ordezkatzeko gastuak, honako irizpideen arabera:

a) Goi-maiztasuna- goi-maiztasuneko tresneria guztien mantentze, konpontze edo ordezkatzeko gastuak Aezkoako Batzarre Nagusiaren kargura izango dira, Aezkoari estaldura ematen diotenen funtzionamendua gutxienez bermatuz. Irratiaren emisioa birbidaltzeko Girizu mendian jarri den tresneriaren mantentze gastuak Auritz eta Luzaideko Udalen kargura izango dira, erdibana banatuak, eta Bizkarretako dermioan daudenena Erroibarko Udalaren kargura.

b) Behe-maiztasuna- Ibarreko etxeko kanpoaldeko antena Aezkoako Batzarre Nagusiarena da, eta bere ardura izango da hura mantendu eta, behar denean, konpontzea. Gainontzeko tresneriaren mantentze eta konpontze lanak Elkartearen ardura izango dira, beti ere banakako aurrekontua ehun eta berrogeita hamar euro baino handiago ez bada, eta guztiena urtero sei ehun euro baino gehiagokoa ez bada. Aurrekontua aipatutakoa baino altuagoa denean, Hitzarmen hau sinatzen duten Toki Entitateen kargura izango da, bakoitzari dagokion proportzioan.

2.3- Aezkoako Batzarre Nagusiak sute eta arrisku osagarrien aseguruia kontratatuko du, irratiko tresneria sartuz.

Hirugarrena.- Irrati emanaldiak.

3.1- Elkarateak bermatuko du egunero goizez gutxienez bi ordu eta erdiko saioa emango dela, horietatik 2 ordu euskaraz eta ordu erdia gaztelaniaz, astero gutxienez 10 ordu euskaraz eta 2,5 gaztelaniaz osotara.

3.2- Elkartea behartuta dago urteroko programazio bat gutxienez aurkeztera Batzorde Mistoari, martxan jarri aurretik jakin eta onets dezan. Hitzarmen hau sinatzen duten entitateek programazioari egokiak deritzoten alegazio guztiak egin ahalko dizkiote eta Elkarateak kontuan hartuko ditu.

Irratia entzun daitekeen Udal zein ibarrekin zerikusia duten gaietarako saioa sartuko da egunero programazioan. Nolanahi ere, derrigorrezkoa izango da Batzarre Nagusiak zein Udalek eman nahi dituzten abisu edo jakinarazpenak ematea, eta horien berri zuzenean igorriko diete irratia emanaldien arduradunei, zerbitzuaren onura publikoa bermatzeko.

3.3- Elkarateko kide ez direnek irratia saioak emateko eskaera egiten badute elkarateak toki eta tresneria erabiltzen utziko die, beti ere saioaren edukia aldeztu aurretik aurkeztu badute eta Batzordeak onartu badu. Elkarateak, irratiko kudeatzailea den neurrian, instalazioen erabilera egokia bermatze aldera, horiek modu egokian erabiltzen direla berrikusi eta hartu beharreko neurriak betearaziko ditu.

3.4- Irratiko saioetan hezibide oneko arauak errespetatuko dira, eta Elkartea edo bere kideek ez dute eztabaidetan edo programetan parte hartzen dutenek emandako iritziekiko erantzukizunik izango; beti ere erantzuteko edo zuzentzeko eskubideak bermatuko dira.

Irratiak izaera anitza izanen du eta inguruko herrietako bizilagunen iritzi eta sentsibilitate guztien isla izanen da; hortaz, irratiko langileek gaiak modu aseptikoan landuko dituzte, batez ere izaera politiko edo moralezko iritziak islatzea saihestuz, saioetan parte hartzen ahal duten irratiz kanpokoek emandakoak izan ezik.

Hauteskunde kanpainak: deialdi bakoitzaren arabera proportzionaltasun irizpideari jarraituko zaio.

Publizitatea: publizitateari emandako tarte ezingo da izan programazioaren ordu guztien %10 baino gehiago, eta eskualdeko establezimenduek lehentasuna izanen dute.

Laugarrena.- Gastu arruntak.

Aezkoako Batzarre Nagusiaren kargura joanen dira zenbait gastu arrunta, hots, argia, berogailu eta urarengatikoak, ordaintzeko era zehaztu arte. Kobratzeko sistema adostutakoan, gastu horiek Hitzarmen honen sinatzaileen kargura joanen dira. Elkartek bere kontu hartuko ditu egiten duen aktibitateak sorrarazitako gastuak, telefonoa, tasak eta zergak, besteak beste.

Bosgarrena.- Langileak

Irati Elkarte enpresari modura arituko da irradi-emanaldi zerbitzuak egiteko langileak kontratatzeko orduan, legezko izaera horri legeak eskatzen dizkion betebeharrak eta aitortzen dizkion eskubideak izanen ditu, bereziki lansariak ordaintzeari dagokionez, hala nola Gizarte Segurantzaren kotizazioari eta Lan Arriskuen inguruko arauak betetzeari dagozkienez. Hitzarmen honen sinatzaileak langileen eta Elkartearen arteko harremanetik kanpo gelditzen dira.

Elkartek eguneratuta izanen ditu, legeak ezarritako epeetan, langileengatiko gastuen egiaztagiriak, nominen eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren kotizazio ziurtagirien bidez. Hitzarmen honen entitate sinatzaileek dokumentazioa ikuska dezakete, bidezkoa ikusten dutenean.

Seigarrena.- Irratiaren finantzazioa.

- Diru-sarrerak

Aezkoako Batzarre Nagusiak Nafarroako Gobernuak, edo Europako fondoetatik, irati emisoreak finantzatzeko eman litzatekeen diru-laguntzak jasotzeko beharrezko tramiteak egiteko konpromisoa hartzen du, beti ere iratiaren titularrak tramitatu balezake. Kontzeptu horrengatik Batzarre Nagusiak jaso litzatekeen diru-laguntzak Irati Elkartearen esku jarriko dira, horiek egiazki jaso eta hamabost eguneko epean. Diru-laguntza horiek Elkartek tramitatu behar izanez gero, Batzarre Nagusiak eskaria egiteko laguntza emanen du, dituen baliabide edo langileekin.

- Gastuak:

Elkartek Aezkoako Batzarre Nagusian eta Erroibarko, Aurizko eta Luzaideko udaletan aurkeztuko du bere kontuen kopia bat, jardunaldi ekonomikoa bukatu eta hurrengo bi hilabeteetan zehar; modu berean, urteko aurrekontuak aurkeztuko ditu,

horiek indarrean egonen diren aurreko urteko abenduan. Aurrekontuetan zehaztuko da aurreikusitako defizita, eta adieraziko da zein entitateri eskatu zaion finantzazioa. Aezkoako Batzarre Nagusiak eta Erroibar, Auritz eta Luzaideko Udalek horiek azterturik, irratia ren funtzionamendurako bidezko ikusten den diru-laguntza partida erabakiko dute, bakoitzaren aurrekontuaren arabera.

2015. urterako, entitateek aurrekontuetan beren fondoetatik jarraian adierazten diren kopuruak kontsignatzeko konpromisoa hartzen dute:

Aezkoako Batzarre Nagusia,	1.200 €
Erroibarko Udala,	1.140 €
Aurizko Udala,	420 €
Luzaideko Udala,	480 €

Elkarteak medio propioetatik diru-baliabide gehiago lortzeko beharrezko gestioak egiteko konpromisoa hartzen du, hala nola irratia finantzatzeko ahalik eta entitate gehien inplikatzekoa.

Zazpigarrena.- Batzorde Misto

Batzorde Misto parekide bat osatuko da, hamaika kide izanen dituena. Aezkoako Batzarre Nagusiko kideen artean aukeratuko dira horietako bi, eta Erroibarko, Aurizko eta Luzaideko udalek bana izendatuko dute. Gainerako bostak Irati Elkartearen ordezkariak izanen dira. Agoizko Udalak, irratiarekin hitzarmen berezia sinatuta duenez, ahotsa izanen du baina botorik ez.

Batzorde Misto tokiko hauteskunde ondo ren entitate bakoitzak izendatutako ordezkarien arabera berrituko da, eta bertan ordezkaturako elkarteek, beren osaketan aldaketak izanez gero, aldaketen berri emanen diete gainerako aldeei, aldaketa horiek gertatzen diren momentuan.

Batzorde Mistoak baldintza hauen jarraipena eta ebaluazioa egingo du. Batzordea gutxienez sei hilabete an behin elkartuko da edo kideren %30ak eskatzen baldin badu.

Zortzigarrena.- Iraunaldia.

Hitzarmen hau indarrean egonen da sinatzen denetik 2015eko abenduaren 31 arte.

Iraunaldia bukatutakoan, hitzarmen hau automatikoki berrituko da hurrengo urteetarako, sinatzaileetako batek hitzarmenak duen edukiaren gaineko aspekturen bat salatu ezean. Hori gertatuz gero, salatzaileak gainerako aldeei jakinaraziko dizkie horretarako dituen arrazoiak, Hitzarmena indarrean dagoen urteko abenduaren 31 baino lehen, eta Jarraipen Batzorde Mistoari egokituko zaio bidezko aldaketak egitea.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

- 1.- Azaldutako lankidetz a hitzarmena onartzea.
- 2.- Irati Irratiko Batzorde Mistoan parte hartuko duen udalaren ordezkaria Karrika Iribarren zinegotzia izatea.

11.- ABENTURA PARKEAREN EGOERA ETA AURREKONTUEN GAINEKO TXOSTENA

Alkateak, De Potestad jnk., hitza hartu du eta jakinarazi du bilera izan zutela Yoller zinegotzia eta bera Imanol Iracebururekin, abentura parkeetako instalazioen teknikaria, eta han esan zutela Pirineos Abentura Parkea oso gaizki dagoela eta horrelako parkeetako iraupena 7 eta 10 urte bitartekoa izan ohi dela eta denbora hori pasatuta beste bat jarri beharko litzatekeela. Iraceburu jk. esan zuen parkeko materiala kentzearen kostua 2.700 euro izan daitekeela, baina haren ondotik txosten idatzia bidali dute eta horretan esaten da 4.876,00 euro izango zirela, eta berria egin eta jartzearen kostua 57.500,00 € izango litzatekeela. Alkateak, De Potestad jk. dio parkea kentzeko lanak baso jardueren programan sar daitezkeela, baina hori galdetu beharko litzatekeela. Gaztelu zinegotziak hitza hartu du eta esan du aparailuak dauden moduan egotea arriskutsua dela eta hori jakinarazteko kartelak jartzea proposatu du, instalazioak erabiltzea debekatuz, eta Dufur zinegotziak dio etxola ere erabiltzen ari dela eta hausten ari dela eta pagoen artean garbiketa egin beharko litzatekeela gaineratu du. Karrika Iribarren zinegotziak dio irtenbideak bilatu ahal direla eta aurrekontu gehiago eskatu. Dena den, beheko aldean dauden materialak udal langileek kendu ditzakete. Azkenik, gaia hobeki aztertu behar dela erabaki da, eta parkea iragartzen duten kartelak kenduko dira eta instalazioak erabiltzea debekatzen duten kartelak jarriko dira.

12.- 2012ko ABENDUKO LANSARI BEREZIA ORDAINTZeko ERABAKIA

Alkateak, De Potestad jk., 2012ko abenduko aparteko lansariaren ordainketaz dio Nafarroako Gobernuak erabaki zuela lansari haren %25 2015eko otsailean ordaintzea, beste %25 2015eko abenduan eta gainontzeko %50 2016ko urtarrilean. Gaia udal idazkariarekin kontsultatu ondoren eta aurrekontuen egonkortasunaren legeak gaia administrazio bakoitzaren esku uzten duela ikusita eta kontuan hartuz ordainketa bideragarria dela, Udalaren langileei lan sari hura osoa ordaintzea proposatu du. Aho batez erabaki da abenduan udalaren langileei 2012ko abenduko aparteko lansari osoa ordaintzea.

13.- EGILEEN ELKARTE OROKORRA, OINARRIZKO TARIFAREKIN BAT EGITEKO ERABAKIA.

Alkateak, De Potestad jnk., jakinarazi du UPEFak eta Egileen Elkarte Orokorrak adostu dutela 3000 biztanle baino gutxiago duten toki entitateei tarifa onuragarriagoak eskaintzea eta horien artean nabarmentzen dena da doako edo prezio murriztuak edo diruz lagunduak duten ekitaldien katalogo zabala, eta toki entitateek erabaki horrekin bat egiteko aukera dutela. Hala ere, Udalak urtero ordaintzen dituen zenbatekoak ikusita ez du merezi erabaki horrekin bat egitea, eskaintzen duten tarifa murriztua baino gutxiago ordaintzen delako, eta, hortaz, orain arte bezala jarraitzea proposatu du eta gaia hobeki aztertzea.

Udalbatza ados dago alkateak, De Potestad jnk., egin duen proposamenarekin eta aho batez erabaki da gaia hobeki aztertzea.

14.- BESTERIK

Langabetuen kontratazioa

Alkateak, De Potestad jnk., jakinarazi du langabetuen deialdiaren bidez kontratatu zen hiru langileetako batek, Unai Gastearnak, baja eman duela 2015eko irailaren 30ean eta

zigorrik ez izateko, NEZko zerrendan begiratu eta beste pertsona bat kontratatu dela, Ana Zabalza, eta hari esango zaiola zer lan egin behar duen eta garai ona dela zerbitzu anitzetako langileak, Jesus Pedroarenak oporrak hartu baititu eta baita beste langile batek, Mikel Etxenikek. Modu berean jakinarazi du deialdi hori arautzen zuen foru agindua bertan behera gelditu dela eta badirudiela beste deialdi bat aterako dela toki entitateek langabetuak kontratatzeke. Azkenik jakinarazi du gazteen berme sisteman izena eman duten gazteak kontratatzeke deialdia atera dela baina haren ezaugarriak ikusita momentuz ez zaigu interesatzen. Deialdi hori datorren urtean aterako da berriro ere.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Eskola Kontseilua

Alkateak, De Potestad jnk., jakinarazi du eskolako zuzendariak ordenagailuak dauden tokiko zolan konponketa batzuk egin behar zirela esanda, Gaztelu jnk., doako materiala lortu zuela eta konponketak egiteko lanak ordaindu direla.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Eskolako jantokia

Alkateak, De Potestad jnk., jakinarazi du eskolako jantokiari dagokionez, ikasturte honetarako eskaintzarik egon ez denez, tabernentzako lotura handia baita, ikastolan bertan ematea establezimendu batean prestatutako bazkaria, eta Hezkuntza Departamentuan gaia proposatu dela eta haien erantzunaren zain gaudela. Dena den, azken momentuan Aritza jatetxea zerbitzua joan den urteko baldintza berdinetan emateko prest azaldu da. Cilveti zinegotziak dio egokiena zerbitzua emateko toki bat eta arduradun bat edukitzea izango litzatekeela. Alkateak, De Potestad jnk., dio ostalarientzako erosoena zerbitzua ikastolan ematea izango litzatekeela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Eskola Garraioa.

Alkateak, De Potestad jnk., jakinarazi du Cilveti zinegotziarekin batera Erroibarko Udalarekin eta bi udalerrietatik egunero ikastera Iruñera joaten diren ikasleen gurasoekin bilera batera joan zela. Han erabaki zen joan den urteko baldintzak mantentzea, Udalak garraioa erabiltzen duen ikasle bakoitzeko 1.500 € jarriz, Aurizko Udalaren kasuan lau ikasle, eta irailetik abendura bitarteko hilabetei dagozkien 2.400 € ordaindu dituela Udalak,

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Eskolako gimnasia-materiala

Alkateak, De Potestad jnk., jakinarazi du ikastolak gimnasiarako materiala eskatu ziola Nafarroako Gobernuari eta igorri dutena ezin dela ikastolan utzi tokirik ez dagoelako eta kultur etxean uztea proposatu da, aldi berean ludotekak erabili ahal izateko. Ebazpena prestatuko da aukera hori eskolari emateko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Saroberriko bidea.

Alkateak, De Potestad jnk., jakinarazi du uztailaren bian Errepideetako Kontserbaziorako zerbitzutik eskatu zutela Saroberriko bidean egindako lanei dagokionez, tutua jartzea eta sasiz garbitzea, eta hamabost eguneko epean egin behar zela, hortaz, zerbitzuarekin mintzatu zen epea luzatzea eskatzeko baina azkenean arazoa Miguel Irigoyen eta udal langileen artean konpondu zuten.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Ibaiko igerilekua

Alkateak, De Potestad jnk., ibaiko igerilekua aurtengo kanpainan erabiltzeko dauden arazoak ikusirik, jakinarazi du legezaturik ez dagoenez, Nafarroako Gobernuarekin harremanetan jarri zela eman ahal diren konponbideak aztertzeko, bizilagunek bainatzeko duten eskubideak Udalak duen erantzukizunarekin talka egiten baitu. Dena den Europako aginduak gai hauekin gero eta zorrotzagoak dira. Azkenik egingo dena da kartel batzuk jartzea, bainua gomendatzen ez dela eta ur-kontrolik egiten ez dela esanez, bai eta norberaren ardurapean gelditzen dela bainatzea ala ez. Hurrengo denboraldietan suteentzako putzu gisa aurkeztea eta EKHri baimena eskatzea.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Udal banderak

Alkateak, De Potestad jnk., esan du Jose Irigaray jk. idatzia aurkeztu duela eta horretan dioela Europako eta udaleko banderak jartzeak irudi konformista ematen duela, identitate gatazka ez dagoen Espainiako edozein tokitakoaren antzera, eta Europako zein udaleko banderak kentzea eskatu du Nafarroako ikurren gaineko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legea aldatu arte, ikurrina jartzeko, eta alkateak dio nahiz eta Irigaray jaunaren iritzia errespetatu Udalak jartzea erabaki zuen eta aurkeztu den kexa bakarra hori izan dela.

Baso Lanak

Alkateak, De Potestad jnk., dio Dufur zinegotziak berari eta Karrika zinegotziari esan ziela premiazkoa dela Aurizberriko mugaraino doan beheko hertsia konpondu behar zela, animaliak sartzen zirelako abeltzainen artean arazoak sortuz, eta Fermin Izkori eskatu ziola txostena prestatzea Nafarroako Gobernura igortzeko eta aldaketa eskatzeko, horren ordeztaloztik hertsia zati bat eginez. Gobernuak aldaketa onetsi zuela. Eta beste aldetik, goiko hertsia behekoaren ordeztaloz egin denez, sasi garbiketari dagozkion unitateak ez dute laguntzatik izango, nahiz eta Baso Kudeaketaren Atalak baimen berezia eman, eta hortaz, Ehiztari Elkartearekin adostu zuela beraiek egitea. Hala ere, hurrengo kanpainarako Dufur eta Karrika Narbaitz zinegotziak eta alkateak, De Potestad jk., goitiko hertsia egiteko aukera aztertuko dute.

Poctefa 2014/2020.

Alkateak, De Potestad jnk., jakinarazi du udan zehar lanean aritu direla eta ekarpenak egin zaizkiola Espainia-Frantzia-Andorraren artean Elkarlanean aritzeko Programaren Deialdian 2014-2020 (POCTEFA) aurkeztu nahi den proiektuari. Udalak azaldu zuen bere ustez proiektua herrian txertatzea garrantzizkoa dela, gaur egun kanpoko zerbait bezala ikusten baita, eta ikuspuntua aldatuz, ekoturismoarekin lotura duen eskualderako proposamena sustatuz. Ingurumeneko Departamentuarekin mintzatuko da finantzazioa lortzeko eta aurkezteko epea azaroan bukatuko da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

NUKFko exekutiboaren hautaketa

Alkateak, De Potestad jnk., jakinarazi du NUKFko exekutibo berria hautatzeko 3000 biztanle baino gutxiago duten udalen hautagai gisa aurkeztu zela eta hautatua izan zela, hortaz batzorde horretan parte hartuko du legegintzaldian.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Urriaren 12a, hispanitatearen eguna.

Alkateak, De Potestad jnk., jakinarazi du Goardia Zibileko tenienteak esan diola aurten ez dutela aurreko urteetan egin ohi zuten otamena eskainiko urriaren 12ko festaren harira.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Feriak

Alkateak, De Potestad jnk., egin diren ferien balorazio positiboa egin du, abuztuko feriaren egunean giro ezin hobea eta jende asko egon zen. Iraileko ferian, aurreko urteetan baino abelburu gehiago baldin bazegoen ere, jende gutxiago egon zen, eta hori hobetu behar da. Dufur zinegotziak dio feriaz gain erakusketa egin beharko litzatekeela. Dena den heldu den urtean kontuan hartu behar da Aezkoako Hiriberrin behi gorrien feria eginen dela gure feria baino aste bat lehenago.

Dufur zinegotziak dio auzolan gehiago egin beharko litzatekeela, besteak beste, pistak mantentzeko, Bidausikoa adibidez, berria delako eta zaindu behar baita. Alkateak, De Potestad jnk., dio baietz, urtean bizpahiru auzolan egiteko aukera aztertzen ari dela.

15.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

- Gaztelu zinegotziak hitza hartu du eta esan du Bidausi Mankomunitateko kidea den neurrian edukiontzi gehiago jarri eta zaborraren bilketa aldatzeko proposamena lantzen ari dela. Edukiontzi hori eta urdin gehiago birtziklapena optimizatzeko, zabor gehien plastikoa eta kartoizkoa delako, baina horretarako etxetik hurbilago egon behar dute. Hortaz, beharrak aztertzen ari da, edukiontziak non ez dauden eta non jarri beharko litzatekeen. Adibidez, frontoiaren atzeko aldean dauden moduan ezin dira ongi erabili, eta kultur etxeko aurreko aldean plastikoa eta papera biltzeko edukiontziak jarri beharko litzateke; Loizu hotelaren ondoan daudenak berdin geldituko litzateke eta Borda eta Biltokirako beirako bat eskatuko liriateke, eta baita hilerri ondorako ere. Zaborra biltzen duenarekin mintzatuko da bere iritzia eskatzeko, uste baitu mota batzuetako edukiontzi gehiegi eta beste batzuetako gutxiegi dagoela eta oreka bilatu behar dela. Modu berean proposatu du bando bat bidaltzea edukiontzien kokapen berriaren proposamena jakinarazteko eta jendeari epe bat ematea proposamenak egiteko.

- Gehiengoak hala proposatuta, aho batez erabaki da bilkura arruntak astelehenez egitea, 17:00etan.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio 22,00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.